BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4321

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 28koa, Garraioetako zuzendariarena, salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2010eko uztailaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena.

Diru-laguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publizitate-printzipioa betetzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko uztailaren 30eko Aginduak 9.3 artikuluan xedatzen duenez, diru-laguntza guztiak emandakoan onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko uztailaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzak, Garraioetako zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera, zeini eman zaien argitara ematea. Onuradunen zerrenda ebazpen honekin batera doa, eranskin gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 28a.

Garraioetako zuzendaria,
MIKEL DÍEZ SARASOLA.

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2010eko uztailaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak.

ONURADUNA	DIRU-LAGUNTZA
Autobuses de Lujua, SL	1.056,25
Autobuses Sobron, SL	2.306,25
Cia Tranvia SAN Sebastián-Tolosa	212,50
Medios y Transportes Gohierri, SL	313,75
Autobuses Hermanos Arriaga, SA	4.000,00
Autocares Aizpurua, SL	625,00
Carnes Erdella, SL	491,25
Encartaciones, SA	2.041,25
J. Apaolaza Autobusak, SL	470,49
Alegria Hermanos, SA	275,00
Autobuses Onieva, SL	825,00
Elkartrans, SL	1.518,75
Betikoak, SL	300,00
Autobuses Cuadra, SA	2.000,00